

Aretxabaleta,  
1993ko urtarrilak 14

# Aretxagazeta



## Berrogei urte parrokian

• *Juan Arregiri  
omenaldia*

• *Afizioak:  
nekazaritza  
biologikoa*

• *Pertsonaia:  
Iñaki Elorza*



Badaukagu herrian txoko zoragarri bat jendeak balore handirik ematen ez diona. Jàdanik batzuk konturatuko zineten

## Ganbaran

ganbarari buruz hitzegiten ari naizela.

Leku serio xamarra eta hotza izan daiteke, baina benetan askoz gehiago balio du. Bertan egiten diren ekintza desberdinak onak izaten dira eta merezi du daukan baino garrantzi gehiago ematea. Gaur egun Atxabaltan daukagun lekurik interesgarriena izan daiteke eta, beraz, jendeari gehiago animatzea eskatzen diot. Ez dut uste interese falta denik, edozeinek apreziatu dezakeelako pintura eder bat, argazki polit bat edo taila zoragarri bat beste gauza askoren artean.

Gabon hauetan, Bergarako Juan Jose Altunaren pintura eskolakoak eta bestalde Jose Ugarte Atxabaltako taila eskolakoak erakusketa bat antolatu genuen. Jende asko pasa da, baina uste dut gehiago animatu beharko litzatekeela. Badakit kale erdian ez dagoela kokatuta, baina merezi du udal txeko eskailerak igo eta edozein ekintza kultural ikustek.

Beste leku batzuetan egin daitezke erakusketak, tabernetan edo kale erdian dagoen txoko hartan ere, baina lekuak handiak ez direnez udal txeko

ganbarara jo behar dugu. Gaur egun herrian badaukagu aprobetxatu dezakegun ganbara ekintza desberdinak egiteko.

Beraz, atxabaltar guztiok animatzen zaituztet udaletxeko eskailerak igo eta bertan dauden erakusketak ikustera edo eta zuen erakusketa propioak antolatzera, lekuak hori eta gehiago merezi du eta.

Besterik gabe, eskerrik asko Gabonetan erakusketan egon zareten guztioi, gustatu zaizuelakoan, eta hurrengorako badakizue non pasa dezakezuen ordu laurdentxo bat.


Edozeinek apreziatu dezake pintura eder bat, argazki polit bat edo taila zoragarri bat.

**Idoia  
Elexpuru,  
pintorea**

## Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da

# Zelakoa izan zaizu 92a? Zer eskatzen diozu 93ari?



**Pako Oskoz**  
( langilea )

92.urtea orokorrean oso txarra izan da niretako.

93rako lana eskatzen dut eta noski osasuna. Bi horiek dira niretako gauzarik inportanteenak.



**Kontxi Arregi**  
( Etxekoandrea )

92a pertsonalki nahiko txarra izan da.

93a ere nahiko baltz jarten ari dira arlo guztietatik. Hala ere nik 92a baino hobea izatea espero dut eta eskatzen dut.



**Itziar Arana**  
( Ikaslea )

92a nahiko ona izan da niretzat. Bueno orokorrean ez hain ona, krisisa hasi delako, gerrak egon direlako eta abar.

93an kurtsoa aprobateza espero dut eta denendako pakea izan dadila.



**Joseba Zubia**  
( Ikaslea )

92a niretzat txarra izan da. Gauza onak egon dira, adibidez Olinpiadak eta beste batzuk gustatu ez zaizkidanak Sevillako Expoa eta abar.

93an dena ondo joatea espero dut: ikasketak eta krisisa ez izatea hain gogorra.

## KARTAK

# Gabonetako opariak

Gabonetako iragarrietan penagarria da benetan hainbeste eskaintza ikustea.

Urte osoan zehar iragarkiak ikusten ohituta gaudela egia da, baina abenduaren lehena heldu bezain laster demasako eskaintza jasan behar dugu guzti hori ezin dugula erosi jakinda.

Nik usain berezi eta zoragarri hori duen perfumea ezin erosteari de-

zepzionagarri baderit-zot, imajina dezagun zer izan daitekeen gurasoentzat eta umeentzat hau, hori eta hura nahi izan, Olentzerori idatzen dena eskatuz, eta Gabonak iristean guzti horietatik ezer ez jasotzea.

Batzutan Olentzerok ondo betetzen du bere lana, baina kasu horietan ere, zenbait dezepzio eta nahigabe gertatzen dira,

lortutako opariak ez dutela ezertarako balio ohartzean.

Aurten, Olentzerok eguneko opariak aukeratzekoan, bakoitzarentzat benetan baliogarri dan zerbait erosten saiatu izan naiz, eta kitto!

**Mari Carmen Ruano**  
Euskaltegiko  
8.mailako ikaslea.

### OHARRA:

**Aretxagazetako azkeneko alea abenduaren 17an kaleratu zen eta karta hau beranduago jaso genuen. Gabonak pasatuta izan arren egokia iruditu zaigu karta hau argitaratzea, berandu xamar bada ere.**

**Barkamena eskatzen diogu Mari Carmeni ere denboraz kanpo argitaratua izan delako.**



## Gabonetan ekintza ugari

Gabonak joan dira eta baita 1992 urte famatua ere. Berrito eguneroko ekintzetara bueltatu gara denok, bakoitza bere lanera.

Gabon hauetan ere ekintza ugari izan ditugu herrian. Umeendako parkeak izan dira bai uretakoa eta baita bestelakoa ere. Herrian zehar egun batzuetan trenare ere ibili da eta bertan ume eta gazte asko ibili dira.

24ean goizean ikastolako haurrak abesten ibili ziren kaleetan zehar gabonei hasera ofiziala emanez. Arratsaldean berriz Olentzerok bere ibilalditxoa egin zuen Kirolo Etxetik plazaraino eta han bere oparia eskaini zion Jesus haurtxoari. Ospakizun horretan jende asko bildu zen, kaleak batez ere umez beteta zeuden, denek gura zuten Olentzero ikusi eta

erregalua eskatu. Ibilalditxoa egin aurretik Olentzerok Zaharren Egoitzara ere erregalua eraman zuten.

31n urteko azkenekeogunean Bizaruri izan genuen eta honi ere ume askok euren kartak eman zizkioten gero honek erregeei emateko. Gabean urte barriari hasiera emateko jende askok urten zuen kalera eta gaba osoan izan zen giro polita. Tabernak beteta egon ziren goizalderarte.

Urte barria hasi eta laster etorri ziren erregeak ere, urtarrilaren 5ean egin zuten Atxabaltatik kalejiratxo. Gaba horretan ume askok ez zuten lorik egingo erregeak noiz etorriko zain. Errege egunarekin eman zitzaion ofizialki bukaera Gabonei.



Juan Arregi, atxabaltarrez inguratuta.

## Juan Arregiri omenaldia

Datorren 17an, domekan Juan Arregiri omenalditxo bat egingo zaio. Eguerdiko 12etan hasiko da Juan Arregiri ongi etorria eginez eliza aurrean, bertan txistulariak eta dantzariak egongo dira.

Ondoren meza izango da eta hemen Atxa-


baltako abesbatzak kantatuko du. Jarraian oroigarri bat emango zaio Udaletxeko Pleno aretoan.

Ordu bietan Urutz Alde elkartearen bazkari herrikoia izango da, bertsolariak eta abesbatzak parte hartuko dute bertan.



## Eskaparate lehiaketa

Aurtengo eskaparate lehiaketaren irabazlea Etxeandia janari denda izan da. 2. saria Txilarra elikadura berezi dendak jaso du eta 3. saria Muruamendiaraz gozotegiak. Zorionak denoi.



## IV. Eskolarteko Literatur lehiaketako irabazleak

Urtarrilaren 5ean eguardiko 12etan eta udaltxeko bilkura aretoan IV. literatur lehiaketako sariak banatu ziren.

Lehiaketa horretan 3. mailatik gorako ume eta gazteek hartu zuten parte. Guztira 280 bat partehartzaile izan ziren. Jende gehien parte hartu zuen taldea 3 - 4 mailako " D " eredia izan zen.

Lehiaketa honetako irabazleak honako hauek izan dira:

3 - 4 mailatan " B " ereduan: Itziar Pie de Hie-

rrero. " D " ereduan: Karmele Azkoitia eta Leticia Olazabal.

5 - 6 mailatan " B " ereduan: Yera Sanchez eta Mireia Valle. " D " ereduan, ipuinean: Nerea Arrese Elorza eta poesian Jone Lezeta Garziandia.

7 - 8 mailatan " B " ereduan: Nuria Mateos. " D " ereduan ipuinean: Saioa Elordui eta poesian Eneko Iriarte.

14 urtetik gorakoetan, ipuinean: Juan Pedro Otaduy eta poesian Nerea Altube Arrese.

## San Martin-San Jose Kofradia

Kofradia hau 1855an sortu zen, San Jose kofradia behintzat. Lehen kofradia desberdin bi ziren eta gero biak bat egin zuten.

1855an San Jose kofradian 254 lagun zeuden, gaur egun 4.500 lagun dira. Gehienak atxabaltarrak dira.

Gaur egun 600 pezetakoa da kuota. Hemen kaja, hileta eta kanpotik ekartea sartzan da. Gainera, taxi bi eta kotxe bat ere kofradiak jarten ditu familiarendako.

Arrasatetik, Gasteiztik ekartzea kofradiak pagetan du, baina Bizkaitik, Donostiatik eta Lezatik ekartea ez da sartzan. Hala ere, %85a Gasteiztik eta Arrasatetik ekarten da.

Kofradiaren urteko aurrekontua 2 milioikoa da. Horretarako, urtean 28 edo 29 hildako izango direla kalkulatu dute.

Direktiban 8 pertsona daude, bi urtetik behin 4 pertsona aldatzen dira.

Y Aurtengo santageda mutilak hasita daude ensaietan. Denera 57 dira eta banakoa ikasita daukate eta orain aureskua, desafioa eta sueltok ikastea falta zaie. Ensaioak eguaztenetan eta eguakotxetan izaten dituzte.

• Murruxok antolatutako aurtengo lehiaketako irabazleak hauek izan dira: argazkian, Joseba Egibar atxabaltarra izan da irabazlea. 2.a Daniel Yaniz bilbotarra.

Diapositibetan, 1go saria Benito Cantero, bergararrak jaso du eta 2.a Jose Agustin Gurruchaga bergararrak. Herriko onena Pedro Sanchez izan zen.

**MZ MASAILARIAK**

**MASAIK ZARIAI**  
MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1. A  
Tnoa: 79 71 55

**BENGOA**  
**FERRETERIA**  
( Menajea eta  
etxerako dana )

Herriko Plazan  
Tnoa: 79 29 12



**EROSKI**

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEAN  
Tfno: 79 16 05



## Iturbe lantegiaren bukaera

Iturbe lantegia, 1933an sortutakoa, las-ter botako dute.

Fabrika hau bi zatitan banatuta dago: lehenengo zatia, gerra aurretik egin zen eta pisu bi ditu, ofizina eta almatzen moduan erabiltzen zirenak.

Bigarrena gerra bukaeran egindakoa pisu bakarra dauka eta hau tailer moduan erabiltzen zen.

Sei lagunek sortu zuten: Manolo Zubillagak, Iturbe anaiek, Asturiasek, Roke Agirrek eta J.J. Arenazak (Atxurdin).

Beranduago sozio barriak ere sartu ziren. Lantegia haundituaz joan zen eta 80 bat

langile izatera heldu zen.

Hasieran, zerrailak eta zierreak egiten zituzten. Gero kotxeentzako zerrailak eta elebalunak ere hasi ziren egiten.

Zerraila hauek IKA izena zeramaten. Gehienbat hemen inguruan saltzen ziren, baina hemendik kanpo ere asko bidaltzen zituzten Madrilerara eta beste leku batzuetara.

Bere garaian indar haundia izan zuen lantegi honek zerraila munduan.

Azken urte hauetan hutsik egon da, 70. hamarkadaren bukaeran itxita gero, arazo handiak izan zirelako.

## San Migel auzoaren barriztea

Atxabaltako Udal Plenoak Eusko Jaurlaritzako Hirigintza Departamentuarekin kooperazio akordio bat sinatzeko eskaera egitea erabaki du. San Migel auzoko ikerketa urbanistikoa egiteko eskatzen da, errehabilitazio gunez onartzeko.

Ikerketak etxebizitzaren kanpokalde guztia- ren konponketa proposatzen du.

Auzo honetan lau edifizio daude, guztira

96 etxebizitzekin, 12 atartetan banatuta. Etxe hauek 1960an eraiki ziren.

Ikerketak atal hauek izango litzuzke:

- Aurrekaldeen konponketaren ikerketa.
- Aurrekaldeen isolamendu termikoaren ikerketa.
- Balkoietako barandak aldatzea.
- Atartetako teilatu- txoen konponketa.
- Aurrekaldeen ikerketa estetiko.


## Auzoetako bideak konpontzen

Datorren otsailean hain hondatuta dagoen bidea, Azatza eta Kurueta auzoetara doana konpontzen hasiko dira.


Bideak dituen zuloak tapatu egingo dira. Gai-

nera arekak garbitu, barriztu eta ormigoiaz indartu eta abar.

Obrak lau hilabete- tan egingo dira eta aurrekontua 35 milioi ingurukoa da.



Azken aldi honetan feria asko izan dira eta horreitan irabazleen artean Atxabaltar baten izena entzun da. Atxabaltar hori Jose Lonbide da. Josek nekazaritza biologikoan jarduten du eta lortu dituen produktuekin sari asko irabazi ditu. Joan den urtean proba moduan ibili da, baina aurten gehiago dedikatuko da horretara.



## Nekazaritza biologikoa

• **Noiztik zabilta nekazaritza biologikoan?**

• Betidanik. Lehenengo ama ibiltzen zen, ez zion barazki eta frutei satsa a besterik botatzen eta gero nik ere berdin jarraitu nuen. Ermuko ortua orain dela 9 urtetik daukat eta hemen daukadana, barriz, betidanik.

• **Zer da nekazaritza biologikoa?**

• Biologikoan barazki eta frutei ez zaie xo-

morroak hiltzeko insektizidarik botatzen eta ezta lehenago hazteko produktu kimikorik ere. Guk botatzen diogun gauza bakarra satsa da, ez besterik eta euren prozesu normala jarrai dezaten utzi.

• **Beraz hori da sekretua eta ez beste ezer?**

• Bai, sekretu inportanteena produktu kimikorik ez erabiltzea da eta gero lurra rotazioan ibiltzea. Aldi bakoitzean

barazki desberdinak sartu behar dira lur sail berean.

Bestalde landareari ez zaio bere prozesua fortzatu behar, bestela defentsak galtzen ditu. Gauregun lehenago hazi dadin produktu kimikoak botatzen zaizkie eta larregi hazten bada defentsa barik geratzen da eta orduan edozein xomorrok egiten dio kalte.

• **Zein da prozesua?**

• Barazki bakoitza behar den garaian lan-

tzen da eta gero hazi direnean jaso. Adibidez, lekak maiatzean lantzen ditut eta uztaile eta abuztuan jaso, idarrak udaberrian sartu eta maiatza inguruan jaso. Bitarte horreitan satsa besterik ez diot botatzen.

• **Eta xomorroak baditu?**

• Orduan horreik hiltzeko botatzen ditudan produktuak naturalak izaten dira, karea eta abar. Dendetan ere egiten dira belarrez egindako insektizida natural batzuk, baina oso zaila da hemen topatzea.

• **Izango du honek jarraipenik?**

• Bai, gero eta gehiago. Lurra erosiatur eta mugituz doa produktu kimikoak direla eta. Hemen inguruan neuz bakarria, baina Europar nekazaritza mota hau oso zabaldua dago.

• **Aurten sari asko irabazi dituzu.**

• Bai, aurten proba moduan ibili naiz eta sari asko jaso ditut ferietan: Urretxun, Elgoibarren 3. postua, Eibarren 3.a, Bergaran, Arrasaten sari berezia eta abar. Horrek animatu egin nau.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kulture sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
ARETXABALETA



Autoservicio  
ANGELINES

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42

Oraingo honetan Atxabaltako Parrokia den Bitoriano Aranbururekin izangara. Don Bitoriano aurtengo Andramaixetan 40 urte egingo ditu Atxabaltan dagoela eta laster 13 urte parroko dagoela. Izatez Don Bitoriano arrasatearra da, baina sustraiak Atxabaltan ditu. Berak herriko hainbat gairi buruz eta herriak izan dituen aldaketei buruz berba egin digu, batez ere eliza eta kristautasunaren inguruan.



## "Helburua helduen fede heziketa da"

• Atxabaltan sustrai sakonak dituzu, ezta?

• Bai, aita hemen jaio-takoa zen, ama Donostian. Bere ama Atxabaltara etorri zen bizitzen eta ezkondua gero Arrasatera joan ziren. Ni han jaio nintzen, baina Andramai guztietan etor-ten nintzen hona.

• Noiz erabaki ze-nuen abade izatea?

• Amari 12 urterekin esan nion apaiz izan gura nuela. Aurretik mojen kapeilaua zen nire osabak esaten zidan apaiz sartzeko, baina nik ez nuen gura. Baina azkenean sartzea erabaki nuen.

• Abade lanetan noiz hasi zinen?

• 1953an Arrasateko

Parrokian apaiztu ninduten, beste bost gazterekin batera. Bigarren meza Atxabaltako Mojen Konbentuan eman nuen.

Atxabaltan sarrera ofiziala 1953ko abuztuaren 15ko meza nagusia eman nuenean izan zen. Orduan eman nuen lehenengo aldiz hitzaldia euskaraz, dena buruz ikasita neukan.

• Astegunak zela batzen dituzu?

• Goizean goiz jaiki, 6.30ak aldean, otoitz egin eta batzutan Konbentuan meza ematen dut. Gero arratsaldeko asteko ekintzak prestatzen ditut edo irakurri eta ikasi.

Arratsaldean, katekistekin elkartu, parrokoiko

arazoak konpondu, ofizian egon eta horrelako gauzak egiten ditut. Aste-ko lana asteburuetakoa baino lan gehiago da. Gainera orain 6 bat urterarte eskolan egin dut lan. Abade izan aurretik Eskola Politeknikoan hasi nintzen erakusten eta gero jarraitu egin nuen.

• Atxabaltako Eskola Profesionala sortu zutenen artean egon zinen, zela sortu zen?

• Ni ez nintzen sortzailea izan, laguntzailea eta gero zuzendaria. Arrasateko Eskolan ikasle kopurua handia zen eta eskola barria egitea pentsatu zen Atxabalta eta Eskoriatzarako. Gure asmoa eskola estatala egitea zen, baina kooperatiba erara funtzionatuz. Lehenengo urtean ondo joan zen, baina gero arazoak sortzen hasi ziren nahaste horregatik.

• Parrokiaren funtzionamenduak izan du aldaketarik urte hauetan?

• Bai, aldaketa haundiak. Eliz barruti mailan Kristau elkarteak egin gura da, gure herrian ebanjelizatzailea izango dena.

Ni parroko naizenetik Pastoral Kontseilua dago, 17 edo 18 pertsonen osatzen dute kontseilu hori. Kontseiluak parroko arazo guztiak aztertzen ditu. Ni, parrokoa naizenez, arduradun nagusia naiz, Mikelekin batera, baina ni ez naiz eliza. Erabakiak nik bakarrik ez ditut hartzen, kontseiluak hartzen ditu.

• Gaur egun zeint-

**"Eliz barrutian gure herrian ebanjelizatzailea izango den kristau elkarteak egin gura da".**



## zuk dira zuen helburu nagusienak?

• Helburu nagusia helduen fede heziketa da. Gazteek ez dute erreferentziarik, gazteen erreferentzia indarrik ez dago.

Gainera fededunen parte hartzea parroki mailan lortu gura dugu. Jende asko dabil, baina gehiago behar da.

Badaude beste arazo batzuk herrian: behar-tsuak, ez bakarrik diru faltagatik, bakea etb.

## • Bukatu da kristau sinismenaren krisialdia?

• Kristauak optimista izan behar du. Guk ez ditugu helburu guztiak momentuan hartu gura.

Orain postmodernismoaren ondorioak bizitzen gabiltza. Konpromezu falta ikusten da, inork ez du konpromezurik hartu gura, ez gizarte mailan, ez kulturaren eta ezta elizan ere.

Gaztea edo heldua urtean behin zerbait egitera konpremetitu daiteke, baina luzarorako konpromezu serio bat hartzeko ez dago prest. Bakoitzak bere bizitza bizi gura du, indibidualki.

## • Horrelakorik ikusi duzu Atxabalтан?

• Bai, etorri nintzenezan elizaren inguruko gazte elkarteetan 400 bat gazte mugitzen ziren. Gehienek beste konpremezu batzuk hartzen zituzten kultura munduan eta abar.

Orduko filosofia hau zen: lana egin gizartearen alde delako eta gizona horrela egiten delako. Kooperatibismoa ere or-



1953ko abuztuaren 15ean, lehenengo meza emanda gero .

duan sortu zen. Orain ez da gizartearendako lana egiten norberaren politikorako baizik.

## • Eta baloreen alde-tik eman da aldaketarik?

• Duda barik, gaur egun diruak eta irabaziak agintzen dute. Ez dut esaten dena oker dagoenik, aztertu egin behar da eta dituen alde onak ikusi.

## • Sakramentuek: ezkontzak bataioak, jaun hartzeak ... ez dute euren zentzua galdu?

• Sarritan zenbait gauzeekin ni konforme ez egon arren egiten dira, ez daude abadeen esku. Askotan sakramentu larregi ematen ditugu gertatu barik.

Hala ere pertsonak berez bereiztuko dira, inork ez da behartu behar. Bataioa eskatzen duenari emango diot, baina kristau ez den batek ez du eskatuko edo ez du eskatu behar behintzat.

## • Horiek ekintza so-

## zial bihurtu dira?

• Bai, aholkuak ematen dira, baina ez da kasurik egiten. Askotan esan ditate hori konpontzeko, baina ni abadea naiz ez sastrea. Bakoitzak ikusiko du zer egin, ezkontzetan ere meza gutxienean da. Horiek ohiturak dira, kristau zentzuduna denean umilago egiten da.

## • Beste erlijioetan ematen dabilzan aldaketak positibotzat hartzen dituzu?

• Emakumeak elizako goiko mailan gustora ikusiko nitzuke, baina horretarako denbora behar da. Emakumea bataiatua da eta hau da titulurik haundiena. Bataioaren bidez nire moduan Jesukristoren apaizgoan parte hartzen du.

Bestalde emakumeak beti paper inportantea izan du, Testamentu Barri-tik hasita, baina nik ez dut ikusiko emakume apaizik.

**"Inork ez du konpromezurik hartu gura. Ez gizarte mailan, ez kulturaren eta ezta elizan ere".**

**Iñaki Elorza leuzemia gaisotasuna pasatu duen atxabaltarra da. Orain guztiz osatuta dago, baina urtero Bartzelonara joaten da rebisioa egitera. Azkeneko aldian hango medikuak TV3koek leuzemiari buruzko programa bat egin behar zutela eta ea parte hartu hartu gura zuen galdetu zion. Abenduan egin zen programa hori eta famatu askok parte hartu zuen, baita Iñakik ere.**



Iñaki, Bartzelona ekipoko jokalariekin.

## Iñaki Elorza, leuzemia gainditu duen gaztea

**• Zela deitu zizuten programa horre-tan parte hartzeko?**

• Urteroko rebisioa egiten joan nintzanean, medikuak esan zigun programa bat gertatzen zebiltzala. Orduan ea guk parte hartu gura genuen galdetu zigun. Lehenengo familia osoak hartu behar genuen parte, baina azkenean nik bakarrik.

**• Ze helburrekin egin zen programa hori?**

• Programa horrekin "Medula emailen bankua" sortu gura zen eta horretarako dirua ateratzea zen helburua. Denera 200 milioi atara ziren, 103 programan bertan eta beste guztia telefono deien bitartez. Diru hori analisiak egite-

ko erabiliko da, analisi bakoitza 10etik 40 mila pezetara kostatzen da eta.

**• Zuk zer egin zenuen programan?**

• Aktuazioaskoegon ziren eta bitarteetan jendeari elkarrizketak egiten zizkieten. Elkarrizketatuak gaixotasuna pasatu duen jendea zen eta baita oraindik pase-tan dabilena ere.

Horreikatu elkarrizketa bat neuri egin zidaten, 10 bat minutuko elkarrizketa izan zen beste neska batekin batera. Elkarrizketan neure esperientzia kontatu nuen.

Programak 6 ordu iraun zuen eta jende famatuak asko izan ziren. Denek katalanez egiten zuten nik ezik, ni izan

nintzen kanpokoia eta gazteleraz egin nuen bakarra. Nahiko protagonista sentiarazi ninduten. Hori denori, "Fundación José Carreras" ek antolatu zuen eta bera ere han izan zen eta baita Montserrat Caballe eta Sergio Dalma eta abar.

**• Eta zelakoa izan da zure esperientzia?**

• Jaunartzea egin eta laster gaisotu nintzen, 10 urterekin. Lehenengotan ez zidaten ezer aurkitzen eta gero zer neukan esan zidatenean Gasteizera eraman ninduten. Gasteizen urte eta piku egin nuen eta hor nahiko txarto pasatu nuen.

Gasteizetik gero Bartzelonara eta han nire arrebaren medula transplantatu zidaten eta gero errekupe-arte han

egon nintzen. Bartzelonan esperientzia gehiago zutela ikusten zen eta askoz hobeto egon nintzen bertan.

**• Zelako esperientzia izan da programa hori?**

• Oso polita. Denak guri laguntzeko prest zeuden eta gainera bakoitzarekin azafata bat geneukan edonora laguntzen ziguna. Estudioetatik hotelera furgonetan eroan giztuzten eta dena oso ondo antolatuta zegoen.

**• Bartzelonako futbolistekin ere izan zara lehenago, ezta?**

• Bai, hori Arrasate Kirolaketen bitartez eta Lopez Rekarteren bitartez izan zen lagunak zirelako. Hori zela eta, ni bisitatzera etorri ziren ospitalean nengoela.

**• Orain ondo zaudede?**

• Bai, bizitza normala egiten dut, urtean behin rebisioa egitera joaten naiz, baina bisitaxo bat egiteko. Orain gaisotasuna ahaztuta dago eta edozein kirol ere egin dezaket, nahiz eta orain futboleaz ez egin.

**• Zer esango zenieke gaisotasun hori pasetan dabilatzanei?**

• Animoak sekula ez galtzeko eta morala beti altu izan dezatela, hori oso inportantea da. Osatuko zarela pentsatu behar da, bestela okerrago izaten da, ni akordeoia jotzen egoten nintzen ospitalean.



## Bosniarrren aldeko partidua

Gabonetan ere kirola izan da protagonista. Alde batetik, abenduaren 27an futbol partidu ikusgarria jokatu zen Ibarra futbol zelaian. Partidua Eskoriatzan dauden bosniarrei laguntzeko antolatua zen eta nesken ekipeak Udaltzatza osatzen dutenen kontra jokatu zuen.

Jende ugari bildu zen eta bosniarrak ere bertan

ziren, arbitroa ere beraietako bat izan zen. Giro polita izan zen eta partidua ikusgarria. Azkenean hirunako emaitzaz bukatu zuten. Nesken ekipotik Xabinek, Anabelek eta Dabidek bere portierian sartu zituzten golak. Udaltzatza zakoan aldetik Iñaki Pierguesek gol bi sartu zituen eta hirugarrena Jokinek. Emaitza nahiko di-

plomatikoa izan zen.

Oso ondo jokatu zuten bai ekipo batekoek eta baita bestekoek ere, Udaltzatza askok oraindik forma onean daudela demostratu zuten. Hala ere, lesionatuak ere izan ziren Udaltzatza koen artean. Ulertu beharrekoa da, horiek ez dute eta nesken moduan astero jokatu.

Y Igeriketa ikastaroak berriro hasiko dira. Hasierako maila eta hobekuntzako maila emango da. Informazio gehiagorako telefono honetara deitu: 79 64 61.

• U.D. Aren egutegiaren zozketan 2004 zenbakia izan da saritua. Zaraia tabernan saldu zen eta Aitor Uribe izan da irabazlea.

• Zumarragan izandako Gipuzkoako Pelota Elkartearen arteko txapelketan, Errasti anaiek junior mailan 1go postua lortu zuten. Eta banakakoan Zuazubizkarrek 2. postua.

## Pala Txapelketa

Gabonetan Pala Txapelketa ere izan dugu, Gabonetako saria. Txapelketa horretan finalera Txomin eta Maritxalar alde batetik eta Orobengoa anaiek bestetik heldu ziren.

Finala urtarrilaren 3an, domekan, jokatu zen Iturrigorri frontoian. Txomin eta Maritxalar izan ziren txapeladunak, 35 - 18 emaitzaz bukatu zen partidua.

## Xakea

Donostian xakea irekia izan da eguberri hauetan.

Open horretan atxabaltarrek ere hartu dute parte eta baita saria lortu ere. Francisco Miguelek 2. saria lortu zuen.

Beraz zorianak Fran eta Atxabaltako Xake Talde osoari, jarraitu horrela sariak lortzen. Xakea sarri aitaketan ez den jokua izan arren, Atxabaltako taldeak garaipen asko izan ditu.

## Ziklo-krosa

Abenduaren 26an promozio mailako ziklo-krosa izan zen.

Jubenil mailan 26 gaztek parte hartu zuten eta sailkapena horrela geratu zen: 1goa Xabier Saiza, 2.a Sergi Lopez eta 3.a Alberto Roldan atxabaltarra.

Kadete mailan, 19k hartu zuten parte eta 1goa Aimar Zubeldia izan zen, 2.a Xabier Olano eta 3.a Mikel Roldan atxabaltarra.

• Urtarrilaren 15etik otsailaren 21era Kirol Etxean Haratuzte Sariko squash txapelketa izango da.




1955eko kabalgata, Atxabaltan egin zen lehenengoa. Ezetz asmatu zeintzuk diren?

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
  - Asmetan dutenen artean Argiaren egutegia zozketatuko da.
- Hona hemen aste honetako galdera:
- **Non dago, Grezian ala Egipton?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Mikerinos)



Aurreko lehiaketaren irabazlea XABIER ABASOLO izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....
- Helbidea: .....
- Tfnoa: .....

# Lana badago, topatu ezkerro



J.J. Aretxaga

Pasatu barri den larogetamabian krisisari belarriak ikusi dizkiogu eta aurrerantzean lana bilatzea gatxagoa izango ei da. Edozein modutan ere, badago lana bilatzen duen jendea. Hiru topatu ditugu aste honetan, eta hirurak neskak. **Marta Madinabeitia** izango da Udaleko Lan Dinamizatzaile barria, urtebeteko kontratuarekin. Euskara Teknikaria den **Ane Lore Estala** lazkaotarraren baja beteteko (haurdun dago eta), eskoriatzar batekarri dute: **Mari Karmen Arrieta**. Aretxagazeta hau ere haundituaz doa, eta egun erdiko bigarren langilea hartu dugu lankide: **Ana Eriz**, Larrinokoa. Hemendik aurrera **Goreti Aiastuik** badauka barriketarako laguna.

Badira, lanik egin ez baina lana emuten duten elementuak. Kurtzebarri Eskolaren ostean apurketak egin dituzte graziosoren batzuk. Benetan lan ederra egin dutenak **Beinke** eta **Gaztetxea** izan dira. Ondo urten zuen zapatu gabean Kiroletxean egin zen kontzertuak. Su ta

Gar eta EH Sukarra taldeen emanaldira jende mordoia joan zen (gaztetxo asko). Diru aldetik irabazi txikiren bat egon ei zen. Zapatu goizean tabladua prestatzen zebiltzala, **Josu Urkiak** esginze bat egin zuen txorkatilan. Dabilenari pasatzen zaio. Mural polita jarri zuten Beinkekoek Kiroletxeko horman. "Ze astakerixia, euskara barik gazterixia". Horrela jakin genuen Atxabaltan margolariak antolatzen dabiltzala. **Paulin Bengoa** eta konpainiak **Margo Lagunak** izeneko kolektiboa osatu dute horrelako gauzak egiteko. Ez da txarra (baina zaila bai) artistak antolatzea. Antolatu, herri honetan gehien antolatzen direnak afariak dira. Horretarako antolatu dira 1973an jaiotako kintoak. Zapatuan egingo dute afaria.

Langileak eta lan klase batzuk aiatu ditugunez, aitatu ditzagun bizitzan zehar makinatxo bat lan egindakoak ere. Aretxabaletan bizi zen gizonik zaharrena (ez pertsonarik zaharrena, kontuz) hil barri da. **Eduardo Gomez**, 94 urtekoa, zen joan zen mendean jaiotako atxabaltar gizonezko bakarra. Bere alargunak, **Ines Horrillok**, 95 urte bete ditu urtarrilean. Eta urteak esaten hasi garenez, esan dezadan herriko pertsonarik zaharrena **Josefina Zubizarreta** dela, Aretxagazetak udaberrian elkarrizketa egin zion emakumea. Abenduaren 12an 98 urte bete zituen Josefina.



## 16 ZAPATUA

- Gaueko 10etan "El último boy scout" filmea Zaraia zineman.
- Gaztetxean pre-soekiko elkartasuneko festa: Arratsaldez: Trikitiak, txalaparta, bertso-lariak...

Gauetz: Kontzertua.

## 17 DOMEKA

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan "

**Detektive con medias de seda**" filmea Zaraia zineman.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Hiruntorreta.**
- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Aloña- Butrehaitz- Arkaitz.**
- Futbola (preferente): **U.D.A - Zumaia F.T.**

## 22 EGUAKOTXA

- Zaraia Mendi Taldearen junta generala.

## 23 ZAPATUA

- Gaueko 10etan "La villa de los viernes" filmea Zaraia zineman.

## 24 DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldea: **Finalisten eguna Mendiola burun.**
- Arratsaldeko 4.30etan "Echale la culpa al botones" filmea eta 7retan "La villa de los viernes" filmea Zaraia zineman.
- Murrukixo Mendi

Elkartearen urteera: **Hiruaitz- Amezueta- Orkatzategi.**

## 27 EGUAZTENA

- Kontzertua Gaztetxean: Billboko "Impresionables" taldearekin. Gaueko 10etan.



# ARETXAZOKA

## Etxebizitzak

- Pisu bat alokatzen da. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19
- Pisu bat alokatzen da San Miguel auzoan. Interesatuok Herriko Plaza 10-era, jantzi den-dara jo edo telefono honetara deitu: 79 59 78.

## Lana

- Neska bat gertu dago etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko arratsaldez. Esperientziaduna. 2etatik 4retara deitu telefono honetara: 79 45 92 (Marta).
- injenieritzako ikasle bat Matematika, teknologia, fisika eta kimikako klaseak emateko prest. Interesatuok deitu: 79 50 39 ra.

## Salerosketak

- Durana Kanean lengo Kutxako lokala saltzen da. Interesatuok deitu telefono honetara: 41 12 65 eta 41 20 44.
- Garaje bat salgai Lausita Kanean. Tnoa: 79 99 86.
- Garaje bat salgai Iparragirre kalean. Interesatuok telefono honetara deitu:

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**

**DON BIDEO  
BIDEO DENDA**

Loramendi, 10  
Tfnoa: 79 81 78

**ZARIA TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik

ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIK

I O S U

URDATEGIA

MITARTE, 1 eta  
GORBEA, 8

**IBARRA ESTANKOIA**

Tabakoa eta  
ikas materiala

Bizkaia, 3  
Tnoa: 79 23 77

**Mobiliario  
ARENAA**

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA

**JAUREGI  
OKINDEGIA  
(panaderia)**

Otalora, 10

☎ 79 57 47



**LENIZ**  
LIBURUDENDA

**HERRIKO  
PLAZA**

TFNOA:  
791616

**GATZAGAN**

Ireki berri!!!

**ZUHAITZ jatetxea**



Tfnoa: 71 41 21

**BENGOA  
Mertzeria**

Durana, 13  
Tfnoa: 792100  
ARETXABAETA

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66

**ANDONI ALTUBE**

**ELEKTRA  
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36  
Tnoa: 79 10 60  
ARETXABAETA

**EXPRESS  
AKEITEGIA**


Santa kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43



**HAIZEA  
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G  
Tnoa: 79 85 57

**Optica**



Loramendi, 10  
Tfnoa: 79 98 21

"HERRASTI"  
AKEITA ETXEA



Aral kalea, 7  
Tfnoa. 79 32 83

**ARLUTZ  
taberna**

Mitarte, 16 ARETXABAETA Tfnoa: 79 32 34

Eutsi iezaiozu  
hamahiruari.

Edo zuk nahi  
izanez gero...



Eperako Aurrezkia

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA